

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure produktua muntatzeko hainbat makina beharko ditugu. Honekin batera, hainbat bulego eduki beharko ditugu, makina eta langile guztiak antolatzeko. Hau guztia edukitzeko instalazio batzuk beharko ditugu, poligono industrial baten kokatuta egongo direnak. Honetarako, pabiloi bat alokatuko dugu. Bertan bulegoarentzat gela bat egon beharko zen eta beste guztia makinak instalatzeko.

Makina espezializatu batzuk edukiko ditugu eta muntaketa kateaz baliatuko gara, gure ekoizpena bizkorragoa izateko. Kate bakoitzeko 5-7 makina edukiko ditugu, eta makina bakoitzaren ostean langile bana. Honetarako, makina denak estrategikoki kokatuta egongo dira. Makina bakoitzak bere lana izango du gure ohea eta gurpildun-aulkia osatzeko, hau egiteko ordea, makinak programazio bat eduki beharko du, gure langile espezializatu batzuek egiten dutena.

Langileen lana makinak konpontzea, programazioak egitea eta muntaketa katean parte hartzea da. Horretarako hiru taldetan bereiziko dira:

- **Muntaketa kateko langileak:** langileak makinaren artean kokatuko dira, makinek egindako lana beraiek bukatzeko, torlojuak jarritz.
- **Makinaren programazioak egitea:** langile hauek espezializatuak izan beharko dira. Makina bakoitza ondo ezagutu behar du, eta egingo duen lana programatzeaz arduratuko da.
- **Makinaren konponketa:** hauek ere espezializatuak izan beharko dira, arazo baten aurrean makinaren matxurak konpondu ahal izateko.

Bulegoetan bazkideak eta enpresaburuak egongo dira. Hauek enpresaren administrazioaz eta koordinazioaz arduratuko dira.